

Urtarrilaren 17an, asteartea, ZINEMA ETA ZIENTZIA zikloa hasiko da GOLEM BAIONAn, *EL NOMBRE DE LA ROSA* (J.J. Annaud) filmarekin. Pedro Miguel Etxenike fisikariak aurkeztuko du filma.



Euskal Filmategiak antolatuta, zientziarekiko maitasuna aldarrikatzen du seigarren edizio honek, hamar filmen bidez. Urtarriletik martxora proiektatuko dira filmak, asteartero, 19:00etan, GOLEM BAIONAn. Nazioartean ospea duten hainbat zientzialari eztabaidan arituko dira, filmei buruz, ikus-entzuleekin. Jatorrizko bertsioan emango dira, gaztelaniazko edo euskarazko azpituluekin. Sarreraren prezioa 4 eurokoa izango da.

Iruñea, 2023ko urtarrilaren 12a

ZINEMA ETA ZIENTZIA zikloaren edizio berria aurkeztu zen atzo, Tabakalera (Donostia) egindako prentsaurrekoan. Donostia International Physics Center-ekin (DIPCrekin) eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin elkarlanean, Euskadiko Filmategiak kultura zinematografikoa eta zientifikoa transmititzen jarraitu nahi du, eta, horretarako, nazioartean ospea duen zientzialari batek hitz egingo du emanaldi bakoitzean. Tabakalera (Donostia), EHUko Bizkaia Aretoa-Mitxelena entzunaretoa (Bilbo), Artium Museoa (Gasteiz), Golem zinemak (Iruñea) eta Le Sélect zinemak (Donibane Lohitzune) izango dira ziklo honetako emanaldien egoitzak.

Joxean Fernandez Euskal Filmategiko zuzendariak esan duenez, edizio honetan «*zinemarekiko maitasuna eta zientziarekiko maitasuna*» izango dira hizpide. «*Ziklo honen seigarren edizioa da. 200 emanalditik gora izan dira guztira, eta ehun bat zientzialarik aurkeztu dituzte, bost hiritan. Sei urte hauetan, hitzaldiak eta eskolentzako saioak ere programatu dira, eta, edizio hau amaitutakoan, 20.000 ikusle baino askoz gehiago bilduko ditugu guztira. Horretan guztian zinemarekiko eta zientziarekiko maitasun handia dago*», erantsi du.

Iruñean, Zinema eta Zientzia zikloa **urtarrilaren 17an, asteartea**, hasiko da, 19:00etan, GOLEM BAIONAn. Pedro Miguel Etxenike fisikariak (DIPC, EHU) *El nombre de la rosa* (Jean Jacques Annaud, 1986) klasikoa aurkeztuko du. *Cuando el destino nos alcance* (Richard Fleischer, 1973) zinemako distopiarik handienetako bat da, eta galdu denarekiko nostalgia du ardatz. Mercedes Vila fisikariak (Biotech Foods) aurkeztu eta hari buruz eztabaidatuko du, hilaren 31n, asteartez.

Otsailaren 7an, Conchi de la Rúa biologoak (EHU) **La herencia del viento** (Stanley Kramer, 1960) aurkeztuko du, protagonistek egia-erakunde maitasunak bultzatuta jokatzeko dutela erakusten duen filma. Hurrengo astean, **Madame Curie** (Mervyn LeRoy, 1943) filmaren txanda izango da. Nobel saria bi aldiz irabazitako poloniar zientzialariak zientziari eta bere familiari zien maitasuna nabarmentzeaz gain, haren ikerketa-urteetan sakontzen du filmak. Elisa Jiménez Izal kimikariak (DIPC, EHU) hartuko du parte proiektuan.

Koronel batek «gorputz-fluido estatubatuarrei» dien maitasunak hondamendi nuklearra ekarriko du **¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú** (Stanley Kubrick, 1967) filmean, hilaren 21ean, Fernando Cossío kimikariaren (EHU, Ikerbasque) eskutik. Hurrengo hitzorduak **Fire of Love** (Sara Dosa, 2022) dokumentalaz gozatzeko aukera emango digu. Beren arteko eta sumendiekiko maitasunak lotutako bi bolkanologo frantsesen esperientziei buruzko dokumentala Asier Hilario geologoak (Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea) aurkeztuko digu.

Martxoaren 7an, arratsaldean, Tom Hanksek maitasuna eskubide gisa defendatuko du **Philadelphia** (Jonathan Demme, 1993) filmean. Julio Arrizabalaga (Biodonostia, Donostiako Unibertsitate Ospitalea) eta Carmen Garde (Biodonostia, Donostiako Unibertsitate Ospitalea) medikuek aurkeztuko dute. **Drácula de Bram Stoker** (Francis F. Coppola, 1992) filmak denboran zehar ezinezko maitasunaren bila dabilen banpiroaren mitoa erakusten du. Hilaren 14an proiektatuko da, Igor Campillo fisikariaren (Euskampus Fundazioa) eskutik.

John Nash zientzialari eta Nobel saridunak eta matematikari zion maitasun obsesiboak inspiratu zuten **Una mente maravillosa** (Ron Howard, 2001) filma. Hilaren 21ean ikusi ahal izango da, Paula Gordaliza matematikariak (BCAM, UPNA) aurkeztuta. Zikloa martxoaren 28an amaituko da, animaltasunari, basatasunari eta munstroasunari kantu eginez, **Marrazoa** (Steven Spielberg, 1975) filmarekin, eta Juan Ignacio Pérez Iglesias biologoarekin (DIPC, EHU).

Madame Curie, **Fire of Love** eta **Marrazoa** filmak **jatorrizko bertsioan** emango dira, **euskarazko azpituluekin**. Mahai-ingurua ere euskaraz izango da, ikusle euskaldunek aukera izan dezaten Iruñean foro zinemazale-zientifiko paregabe batean parte hartzeko.

Sarrerak GOLEM BAIONAren web-orrietan eta txarteldegietan eros daitezke. Sarreraren prezioa 4 eurokoa izango da. Informazio gehiago: www.filmoteka.eus eta www.golem.es

GOLEM BAIONAko programa

2023-01-17	El nombre de la rosa (Jean-Jacques Annaud, 1986). JBGA. 131'
	Aurkezlea: Pedro Miguel Etxenike.
2023-01-31	Cuando el destino nos alcance (Richard Fleischer, 1973). JBGA. 97'.
	Aurkezlea: Mercedes Vila.
2023-02-07	La herencia del viento (Stanley Kramer, 1960). JBGA. 127'
	Aurkezlea: Conchi de la Rúa.
2023-02-14	Madame Curie (Mervyn LeRoy, 1943). JBEA. 124'
	Aurkezlea: Elisa Jiménez-Izal.
2023-02-21	¿Teléfono rojo? Volamos hacia Moscú (Stanley Kubrick, 1967). JBGA. 93'.
	Aurkezlea: Fernando Cossío.
2023-02-28	Fire of Love (Sara Dosa, 2022). JBEA. 93'. Aurkezlea: Asier Hilario.
07-03-2023	Philadelphia (Jonathan Demme, 1993). JBGA. 125'
	Aurkezlea: Julio Arrizabalaga eta Carmen Garde.
2023-03-14	Drácula de Bram Stoker (Francis F. Coppola, 1992). JBGA. 130'
	Aurkezlea: Igor Campillo.
2023-03-21	Una mente maravillosa (Ron Howard, 2001). JBGA. 135'
	Aurkezlea: Paula Gordaliza.
2023-03-28	Marrazoa (Steven Spielberg, 1975). JBEA. 124'
	Aurkezlea: Juan Ignacio Pérez Iglesias